

Haurtzaro Ikastolako

Emakume eta Gizonen
Berdintasunerako
I. Plana



TXINPART

ALDIZKARIA / 2023ko ekaina / www.haurtzaroikastola.eus

AURKIBIDEA

Agurra	_03
Gai Nagusia	_04
Berrikuntzak	_08
Irakasleak	_10
Gurasoak partaide	_12
Urmendi	_14
Hatzak bete lan	_20
Argazki-albuma: Amesturiko Jolaslekua, Inauteriak, lhoteak, Ikastola Eguna	_34
Taldea	_36
Laburrak	_38
Eskolaz kanpokoak	_42
Oiartzo	_44

TXINPART

Hautzaro Ikastola
Elorrondo z/g - 20180 Oiartzun
T.: 943 49 16 59
hautzaro@ikastola.eus
LG: SS-129 / 2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
DIXIDU Diseinu Grafikoa



AGURRA

Kaixo guztioi, *Txinpart!* aldizkariaren 79. zenbakia duzue esku artean. Konturatzeko, ikasturtea ere pasatu zaigu, eta beste behin, guztion interesekoak izango diren kontu askorekin gatoz.

2022ko urte osoan zehar, Farapi Kooperatibako kideekin elkarlanean, Hautzaro Ikastolako Berdintasunerako I. Plana osatzea lortu dugu. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoaren eta planaren diseinu prozesuak bere emaitzak eman ditu, eta prest daukagu Hautzaro Ikastola Kooperatiba Elkartean datozen lau urteetan (2023-2027) indarrean izango dugun emakumeen eta gizonen Berdintasunerako I. Plana. Aurrerapen gisa, planaren laburpen bat topatuko duzue aldizkari honetan, baina asmoa, aurrerago, plan osoa guztiok eskura edukitzea da.

2022ak gehiagorako ere eman digu, eta abenduaren amaieren, Kalitate Egitasmo Integratuko (KEI) akreditazioa berritzeko aseguramendu auditoria gainditu genuen, akreditazioa beste bost urtetarako berrituz. KEI kalitate egitasmoa Hautzaro Ikastolak ezarrita dituen xedeak erdiesteko lan-tresna lagungarria zaigu eta helburu horrekin jarraituko dugu lanean.

Datorren ikasturteari begira, zuzendaritzan kide berriak izango ditugu eta haien berri ere izango duzue ale honetan. Hautzaro Ikastolako gidaritza ez da lan makala,osatzen dugun komunitatea handia da eta aurrean ditugun erronkak ere handiak dira, baina guztion babesarekin eta elkarlanean aurrea jarraituko dugu eta zorterik hoberena opa diegu.

Besterik gabe, osatu dugun ale honetaz gozatzeko unea iritsi da, jarri eroso eta segi irakurtzen!

HAURTZARO IKASTOLAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANA

Haurtzaro Ikastola 2022 urtean zehar emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostiko eta planaren diseinu prozesuan murgilduta egon da Farapi Kooperatibaren bidelaguntzarekin. Honen emaitza gisa prest dago 2023-2027 indarraldia izango duen Haurtzaro Ikastola Kooperatiba **Elkarteko emakume eta gizonen Berdintasunerako I. Plana**.

BERDINTASUN DIAGNOSTIKOA

Genero ikuspegitik aztertutako alderdiak:

- Kooperatibaren filosofia.
- Lan taldearen analisi kuantitatiboa.
- Pertsonen kudeaketarako prozesuak.
 - Hautaketa eta kontratazio prozesuak.
 - Formazioa.
 - Sustapen profesionaleko prozesuak.
- Ordainsari politika.
- Lan baldintzak.
- Lana eta bizitzaren arteko bateragarritasuna.
- Emakumeen ordezkartza txikia.
- Sexu jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena.
- Beste batzuk:
 - Genero indarkeria.
 - Komunikazio inklusiboa eta hizkuntza ez sexista.
 - Ingurunearekiko harremana.

BERDINTASUN PLANA

Haurtzaroko I. Berdintasun Plana 7 lan ildotan egituratzen da, bakoitza bere helburu, ekintza eta neurri zehatzekin:

- BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA ETA POSIZIONAMENDUA.**
- 1.1. Haurtzaro Ikastolak emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko borrokarekiko duen konpromisoa indartu eta posizionamendu hau argi adieraztea.**
 - 1.1.1. Berdintasun Planaren sozializazioa eta hau egiteko argibide saioak egitea.
 - 1.1.2. Kooperatibaren filosofiaren inguruko dokumentuak (nagusiki, barne araudia) berrikusi eta emakume eta gizonen berdintasunari erreferentzia zuzenagoa egin.
 - 1.1.3. Ikastetxe bezala, aldarrikapen feministako egun nagusiekin bat egiten jarraitu (martxoak 8 eta azaroak 25, esaterako) sentsibiltate ekintzen bidez.

2. LAN TALDE PAREKIDE ETA SENTSIBILIZATUA.

2.1. Hautaketa eta kontratazioa.

2.1.1. Lan taldearen kudeaketaz arduratzen diren talde eta egiturak genero aldetik parekideak izatea.

2.1.1.1. Lan Batzordeko partaideen kopurua genero aldetik parekidea izateko saiakera egitea eta konpromiso honen aldeko hautua Barne Araudian txertatzea.

2.1.2. Lan taldea genero aldetik gero eta parekideagoa izan dadin urratsak egitea.

2.1.2.1. Urteko lanpostuen eskaintza egin aurretik, plantillaren genero analisia egin eta analisi horren ondorioen arabera, lan eskaintza egitean ekintza positiboko neurriak hartzeko aukera balioetsi.

2.2. Sustapen profesionala.

2.2.1. Emakumeen ordezkartza botere eta ardura postuetan areagotu edo errazteko, edo postu hauetarako emakumeen sarbidea sustatzeko neurriak hartzea.

2.2.1.1. Botere eta ardura postuetan emakumeen sarbidea sustatzeko ahalduntze eta boteretzea sustatzea, horretarako formazio, lantegi edo ekintzen bidez.

2.2.1.2. Postu hauen ardura eta dedikazio maila jaitsi edo eraman errazagoa eta bizitzarekin bateragarriagoa egiteko neurriak hartzeko aukera aztertu eta ahal direnak aplikatzea (esaterako, ikasketa-burutza bikoteka planteatzea).

2.3. Formazioa.

2.3.1. Kooperatibako langileak berdintasun gaietan trebatzen jarraitzea eta ezagutza horietan sakontzea.

2.3.1.1. Ikastetxeko langileen artean (batik bat, irakasleak) hezkidetzaren inguruko formakuntzekin jarraitzea eta ezagutza hauetan sakontzea.

2.3.1.2. Hezkidetzaren eta berdintasunaren inguruko oinarritzko edukiak eta ezagutzak ikas komunitateko beste eragile batzuei (jantokiko langileak, eskolaz kanpoko hezitzaileak, familiak...) ere zabaltzea eta gai honen inguruko formakuntzetara gonbidatzea.

2.3.2. Norbere garapen profesionalerako, formakuntza aukera berberak izatea, hauek bakoitzaren behar eta ezaugarrietara egokituz.

2.3.2.1. Formakuntza planekin jarraitu etengabeko formakuntza bermatuz, orokorrak zein bakoitzaren profil profesionalari lotutakoak, langile guztiei formakuntzarako aukera berak eskainiz.

3. LAN BALDINTZETAN BIZITZA ETA PERTSONAK ERDIGUNEAN.

Lan baldintzen hobekuntzak Haurtzaro Ikastolako langile guztiei eragiten die. Sektore eta lan talde feminizatu baten parte direnez, hemen egiten diren hobekuntzek nagusiki emakumeei eragingo die. Horrez gain eta sektore zein lan talde feminizatu bat izaki, esan daiteke bereziki fokua bizigarritasunean eta honen beharra aldarrikatzean jartzen dela. Beraz, atal honetan, Haurtzaro Ikastola lanerako espazio bizigarriagoa izateko eta bertako langileak beren lanarekiko asebetetze maila altuagoa izateko ekintzak jasotzen dira.

3.1. Lan baldintzen inguruan identifikatzen diren tentsio eta gabezia nagusiei genero ikuspegia kontuan hartuz erantzuna ematea.

3.1.1. Lan baldintzetan ematen diren lan-karga altuek eta erritmo biziak eragindako tentsio eta ezinegon egoerak, zein kezka nagusiak mahai gaineratu, partekatu, eta egoera baretzen laguntzeko neurriak hartzeko aukerak aztertzea, barne hausnarketa saioen bidez (kanpoko norbaiten bidelaguntzaz egindako saioak izan daitezke). Horrez gain, etengabe lanen banaketa egokitzen jarraitu.

3.1.2. Kooperatibaren berezko antolamenduari eta kudeaketari lotutako eginkizunak eta funtzionatzeko moduak zeintzuk diren argi identifikatu eta kide guztiei (bereziki langile berriei) azaldu. Horretarako, "Harrera Plana" sortu eta bertan txertatu modu argian.

3.2. Egoera zaurgarriagoan egon daitezkeen langileen lan baldintzak bereziki zaintzea, genero ikuspegia kontuan hartuz.

3.2.1. Lan osasunaren ikuspegitik, Haur Hezkuntzako zikloan (momentu honetan, adineko emakume askok lan egiten dute bertan) garatu behar diren lan fisiko ezberdinen eragina prebenitu zein murrizteko neurriak hartzea (akonpainamendua errefortzuko irakasleen bidez, lan kargak arintzeko 3 urte arteko adin tartean...).

4. LANA ETA BIZITZAREN ARTEKO BATERAGARRITASUNA.

Kontziliazioa lan baldintzen barruan sartzen den arren, berdintasunari kontziliazioari bereziki arreta jartzea eta lantzea garrantzitsua da, horregatik atal bereizi bat eskainiko zaio.

4.1. Haurtzaro Ikastolaren ikas-komunitate osoan (langileak, ikasleak, familiak...) lana eta bizitzaren arteko bateratzea (kontziliazioa) eta bereziki, zaintza arduerikiko erantzunkidetasuna sustatzea.

4.1.1. Zaintza arduerikiko erantzunkidetasuna sustatzeko sentsibilizazio kanpainak garatzea langileen artean (ko-gurasotza sustatzeko COVID-19 garaian egindako saiakerari jarraipena ematea).

4.1.2. Ikastolan egindako ekimen ezberdinetako parte hartze datuak (guraso bilerak, ikastaroak...), zein murrizketa edo lizentziak hartzen dituztenen datuak, sexuaren arabera banatuak, jaso eta genero irakurketa bat egin.

4.1.3. Aurreko ekintzari jarraiki eta beharrezkoa balitz, datu hauek sozializatu sentsibilizazio kanpaina modura, edo bestelako neurri zuzentzaileak hartu.

4.2. Kontziliazioa erraztu eta erantzunkidetasuna sustatzeko, lanaldiak egokitzea, denboraren antolamenduan eta prestazio moduetan.

4.2.1. Dauden galdetegietan (asebetetzeko galdetegian) lan baldintzen eta kontziliazioaren inguruko atal bat integratu, langileen kontziliazio beharrak ezagutzeko eta bertan jasotako ondorioen arabera, neurri zuzentzaileak hartzeko. inguruko atal bat integratu, langileen kontziliazio beharrak ezagutzeko eta bertan jasotako ondorioen arabera, neurri zuzentzaileak hartzeko.

5. ORDAINSARI POLITIKA BERTINZALEA.

5.1. Lanpostu baxuenen artean lan gehiago bultzatzea, lanaldiak luzatzeko eta, horrela, soldatak igotzeko. Gaitasun gutxien duten lanpostuak gaitzeko barne prestakuntza bultzatzea, soldata hobekuntza bermatzeko lan espezializatuagoak egin ditzaten.

5.1.1. Kontratu txikiak dituzten pertsonen aukera ematea (oro har, kategoria txikieneko lanpostuak), erakundean beharrezkoak diren (edo izan litezkeen) beste lan mota batzuk egiteko, beren dedikazioa eta, beraz, kontratazio lanaldia handitzeko. Horretarako, zaintza zerbitzuak eskaini behar direnerako pertsona hauekin kontatzea, ordezkapenak egiten dabiltzan irakasleei ere jardunaldia osatzeko aukerak ematen saiatzea. lanpostuak), erakundean beharrezkoak diren (edo izan litezkeen) beste lan mota batzuk egiteko, beren dedikazioa eta, beraz, kontratazio lanaldia handitzeko. Horretarako, zaintza zerbitzuak eskaini behar direnerako pertsona hauekin kontatzea, ordezkapenak egiten dabiltzan irakasleei ere jardunaldia osatzeko aukerak ematen saiatzea.

6. SEXU JAZARPENA ETA INDARKERIA.

6.1. Sexu jazarpenik eta sexuan oinarritutako jazarpenik gabeko ingurunea eskaintzea.

6.1.1. Lan Hitzarmenean jasotzen den protokoloa berrikusi: langileen artean zabaltzeko eta ekarpenak jasotzeko.

6.1.2. Protokoloa Haurtzaro Ikastolara egokitu eta horri aurre egiteko antolakuntza izendatu.

6.1.3. Protokoloa langile eta komunitate osoan zabaltzeko eta sozializatu.

6.1.4. Protokoloan zehazten dena Haurtzaro Ikastolako prozeduretan jasotzeko.

6.1.5. Sorturiko protokoloari jarraipena eman eta aldian aldiko ebaluazioak egin, eta beharrezko balitz, protokoloan beharrezko egokitzapenak egin. balitz, protokoloan beharrezko egokitzapenak egin.

7. KOMUNIKAZIO INKLUSIBOA.

7.1. Komunikazio inklusiboaren aldeko lanetari jarraipena ematea eta honetan sakontzea.

7.1.1. Bizikidetzatza/Hezikidetzatza taldearekin batera komunikazio inklusiboa eta hizkuntza eta irudi ez-sexistaren lanetarekin jarraitzen dela ziurtatu.

PLANAREN APLIKAZIOA ETA JARRAIPENA

Berdintasun planaren negoziazio-batzordeak planaren jarraipen-batzorde gisa Lan Batzordea eta Kontseilu Soziala izendatu ditu. Bi espazio hauek baitira Haurtzaro Kooperatibako lan eremura zuzenduak daudenak, langileen eta lan eremuko gai, gatazka eta zalantzak bideratzeko taldeak.

Jarraipen-batzorde honen eginkizun nagusia plana zehaztu bezala aurrera eramaten ari dela zaintzea izango da, eta egon litezkeen zailtasun eta arazoaren aurrean beharrezko egokitzapen eta aldaketak pentsatu eta aurrera eramatea.

Berdintasun planaren negoziazio-batzordeak planaren jarraipen-batzorde gisa Lan Batzordea eta Kontseilu Soziala izendatu ditu. Bi espazio hauek baitira Haurtzaro Kooperatibako lan eremura zuzenduak daudenak, langileen eta lan eremuko gai, gatazka eta zalantzak bideratzeko taldeak.

Jarraipen-batzorde honen eginkizun nagusia plana zehaztu bezala aurrera eramaten ari dela zaintzea izango da, eta egon litezkeen zailtasun eta arazoaren aurrean beharrezko egokitzapen eta aldaketak pentsatu eta aurrera eramatea. Ez-sexistaren lanetarekin jarraitzen dela ziurtatu.

Inguruko atal bat integratu, langileen kontziliazio beharrak ezagutzeko eta bertan jasotako ondorioen arabera, neurri zuzentzaileak hartzeko.

Emakume askok lan egiten dute bertan) garatu behar diren lan fisiko ezberdinen eragina prebenitu

zein murrizteko neurriak hartzea (akonpainamendua errefortzuko irakasleen bidez, lan kargak arintzeko 3 urte arteko adin tartean...).

Bakoitzaren profil profesionalari lotutakoak, langile guztiei formakuntzarako aukera berak eskainiz.

(martxoak 8 eta azaroak 25, esaterako) sentsibiltate ekintzen bidez.



2009. urtean, Haurtzaro Ikastolako lehenengo Plan Estrategikoa idatzi zenetik, 2022ko abenduan KEI akreditazioa berritzeko aseguramendu auditoria gainditu dugun arteko ibilbidea luzea izan da. Haurtzaro Ikastola bezalako proiektu handi eta konplexu batek, **kudeaketa eraginkor eta ordenatu bat** lortzean du erronka nagusienetarikoa bat. Hausnarketa prozesu baten ondoren, ondorio horretara iritsi zen hasiera hartan, eta kudeaketarako tresna egoki baten bilaketa ere orduntxe bideratu zen.

Kudeaketarako, kalitatearen inguruko hainbat eredu eta zigilu daude, enpresa askotan martxan daudenak eta baliagarriak direnak. Gurea, ordea, ez da nolanahiko jarduera, gu hezkuntza munduan gaude, **gure helburua ez da onura ekonomikorik lortzea, edo produkzioa handitzea. Guk, gure proiektua jasangarria izatea dugu helburu**. Ikaslea zentroan dugula, gure hezkuntza proiektua aurrea eramateko beharrezkoak ditugun azpiegitura eta baliabide guztiak antolatzea eta bideratzea.

Bilaketa horretan, **Kalitate Egitasmo Integratu (KEI)** kalitate ereduak aurkeztu ziguten. Beste kalitate ereduetatik bereizten duen ezaugarria, kultura burokratiko formala alde batera utzi eta lan prozesuek pertsonen hazkuntza gizatiarra eta profesionala bideratzean datza. Horreum fundazioko kalitate egitasmoa hau, prozesuen eta pertsonen lanaren hobekuntzan oinarritzen da.

Honela, 2010az geroztik, ikastolako lan prozesuak hobetzeko neurriak zehazten jardun izan dugu, prozesuan, eta ikastolako komunitate osoak hartu du parte. KEI ereduak zehazten dituen **7 eremuen baitako antolaketa izan dugu ordutik: erakundearen planteamenduak, antolakuntza egiturak, elkarbizitza eta harremanak, tutoretza eta orientazioa, curriculum, familia eta ingurunea eta administrazioa/zerbitzuak**.

2017ko ekainean, KEI kalitate ziurtagiria eskuratu genuen Horreum fundazioaren eskutik. Hasieratik oso argi izan dugu, KEI, gure egunerokorako lan tresna dela eta helburua ez zela KEI ziurtagiria lortzea. Ziurtagiria lortzea ibilbide honetan hartutako erabaki bat izan zen, eguneroko lanketak bideratu zuen aukera.

Ziurtagiria bost urtero berritzen da, eta 2022ko abenduan, KEI akreditazioa berritzeko aseguramendu auditoria gainditu genuen, **ziurtagiria beste bost urtetarako berrituz**. Urte hauetako guztietako ibilbidearen ondoren, **KEI tresna eraginkorra dela** frogatu ahal izan dugu, eta hor dauzkagu, Haurtzaro Ikastolako hezkuntza proiektua aurrera ateratzeko bitarte honetan komunitate osoarekin adostuak izan diren 4 Plan



Gurea, ordea, ez da nolanahiko jarduera, gu hezkuntza munduan gaude, **gure helburua ez da onura ekonomikorik lortzea, edo produkzioa handitzea. Guk, gure proiektua jasangarria izatea dugu helburu**.

Estrategikoak. **Plan Estrategiko horiek, hezkuntza proiektuan jasotako helburu eta nahi orokorrak hartu eta lan ildo bilakatzea ahalbidetu dute**; ildo hauek aurrera ateratzeko diseinatutako eguneroko lan gauzatzea, hasieran ezarritako helburuak betetzen ditugula bermatuz.

Berri pozgarria da inongo dudarik gabe, baina guk gurean jarraitzen dugu, Haurtzaro Ikastolako kudeaketa eraginkor eta ordenatu batetan lan egiten, **pertsonen hazkuntza gizatiarra eta profesionala bideratu asmoz**.

IBILBIDE BERRI ON!

Aurten **Igone Urkia** eta **Arantza Lopez** lankideak omenduko ditugu. Iaz utzi zioten eskolak emateari, baina erabateko erretiroa aurten hartu dute.

Omenaldia **Karmele Etxebestek** eta **Maria Jesus Retegik** ere jasoko dute. Iaz erretiratu ziren, baina ez zuten izan aukera omenaldian parte hartzeko.

Denei, bejondeizuela! Askok gozatu bizitzako aro berriaz!



ZUZENDARITZA BERRIA

Hilabete batzuetako lana izan da zuzendaritza hautagaitza prozesua. Etapetan, prozedurak landu, adostu eta indarguneak eta ahuleziak identifikatzera iritsi ginen ikastolan.

Prozesua bukatutzat ematerik ez badago ere, lanean jarraitu beharko dugulako aurrerantzean ere, taldetxo batek, **“umiltasunez**, guztiona den Haurtzaro Ikastola proiektuaren jarraipenean, **elkarlanean eta guztion laguntzarekin**”, aurrera egitea erabaki zuen. Bere burua aurkeztu zuen laukote batek, eta bozketa bidez,

Ian bazkideek ontzat eman genuen zuzendaritza talde berria izango dena:

- HHko ikasketaburua
Maialen Bengoetxea Izagirre izango da.
- **Idurre Arrastua Lekuona**, LHko ikasketaburua.
- **Ander Mariezkurrena Saizar**, DBHko ikasketaburua
- **Kristina Boan Martikorena**, zuzendaria.

Mila esker zuen prestutasunagatik!
Elkarrekin egingo dugu ondorengo ere!



”

Hilabete batzuetako lana izan da zuzendaritza hautagaitza prozesua. Etapetan, prozedurak landu, adostu eta indarguneak eta ahuleziak identifikatzera iritsi ginen ikastolan.

04. GURASOAK

GURASO ORDEZKARIEN LANTALDEAK, MARTXAN

Askotan esan dugu ikastolaren oinarrietako bat familien partaidetza dugula eta partaidetza horren gunea, Guraso Ordezkarien foroa.

Kezkak, zalantzak, kexak, iradokizunak... beti izan ditugu, baina nola kudeatu? Nola helarazi dagokion lekura? Nola landu?

Foro hau da horretarako gunea egokiena, baina eraikitze prozesu batean dago, gune kooperatibo eta kolaboratiboa izatea nahi dugulako eta gaiak denon parte-hartzearekin horizontalean landu nahi ditugulako.

Eraikitze prozesu honetan joan den ikasturtean familia guztiei galdetegi bat pasatzea erabaki genuen, eta iraileko geletako guraso bileretan aurkeztu genuen.

GURASOENTZAKO GALDETEGIA

Ikasturte berria hastera doan honetan, guraso ordezkariak gainerako gurasoen kezka eta ardurak zeintzuk diren jakin nahiko genuke. Kontuan izan guraso ordezkarien batzarrean Haurtzaro ikastola osatzen dugun komunitateari dagozkion gaiak jorratuko direla, norbanakoari dagozkion gai edo arazoak zuzenean tutore edo arduradunarekin aztertuko baitira.

Ondorioz,


Zein arazok kezkatzen zaitu?

Zer sumatzen duzu faltan?

Zer aldatuko zenuke?

Hau da...

Zure ustez zer gai landu edo aztertu beharko lirateke guraso ordezkari bileretan?



42 erantzun jaso genituen, sailkatu (lanketa sakona, informazioa bildu...), honen berri eman eta berriro galdetegi baten bidez lantaldeak osatzeko deialdia egin genuen, argi baikenuen gaiekin aurrera egiteko, guri tira egin beharko zitzaioala.

35 pertsonek eman zuten izena galdetegi honetan, 7 lantalde sortu dira eta bakoitzak bere martxa hartu du:

1. Kanpo-eremua
2. Hezkidetzatza
3. Pantailak eta mugikorrak
4. Jantokia
5. Jantokia eta alergiak
6. Bizikidetzatza: herriko jaiak, ospakizunak...
7. Kantutegia, erlijioa eta ondarea

Eskatzen duten lanaren arabera lantalde batzuk besteek baino bisibiltate gehiago (kanpo eremua da adibide garbia) duten arren, guztiak ari dira beren fruitua ematen.

Mila esker zuen parte hartzeagatik eta zorionak egindako lanarengatik!

KONTSEILUKIDE BERRIAK



Dakizuenek, ikastolako bazkide onuradun guztiek dute Kontseilu Errektoreko izateko aukera (familia bakoitzeko kide batek).

Aurten, kontseilukideak berritzeko prozesua egin dugu. Hautagaiak denak zarete, baina hiru gurasok euren burua aurkeztu zuten.

Bozketa egin ondoren, berriro ditugu Kontseilu Errektoreko gurasoen bi ordezkariak. Kontseilukide aukeratuak honakoak dira:

- Aritz Rodriguez

- Edith Agirre

Eskerrik asko eta animo!

ETXEKO IPUIN KUTTUNA JOAN-ETORRIAN



Haur literaturari bere balioa eman nahi izan diogu, izan ere, orain aipatu bezala, badakigu literaturarekin orain sortzen den harremanak gerora eragin zuzena izango duela.

Gaian murgiltzen hasteko, hona hemen literaturaren inguruko zenbait aipu:

- Hezkuntza sailak 2018an esan bezala, "irakurtzea testuarekin interakzioa izatea da, irakurleak jardun horretara bere ezagutza eta esperientziak ekarri, testua ulertzeko, interpretatzeko, erabiltzeko eta haren inguruan gogoeta egiteko".
- "Irakurtzea da, kantua, poesia edo ipuin bat entzutea, ukitzea, zupatzeta, irudi bat ikustea, gorputzarekin jolastea...". Alonso, J.
- "Literaturak ez dio haurren buruari hitz egiten, baizik eta haurren bihotzari!". Alonso, J.
- "Lehenengo hilabetetan eta urteetan, errealitatearekin harremanak izateko, haurrak dituen komunikatzeko tresna nagusiak zentzumenak, mugimendua, erritmoa eta jolasa dira, batik bat. Tresna horiek aurkitzen ditu irakurketaren eta kontaketen bidez heltzen zaizkion istorio txikietan, errimetan eta jolas erritmikoetan, nagusiek beren istorio txikiekin ematen dizkieten irakurketetan. Bestetik, haur txiki horri "irakurketa ematen" diogunean, komunikazio afektiboa sortzen da bera eta bere helduen artean. Gertakizun hori erabakigarria da lotura afektiboa finkatzeko (hitza, ukimena, begirada, keinua...). Gero irakurketaren eta idazketaren ikasketarekin, beste bide bat zabaltzen da komunikazioan, baina heldu baten laguntza eta "presentzia" ezinbestekoa da komunikazio hori burutzeko...". Zubizarreta, I.

Haur literaturari bere balioa eman nahi izan diogu, izan ere, orain aipatu bezala, badakigu literaturarekin orain sortzen den harremanak gerora eragin zuzena izango duela. Hori helburu izanik, proiektu txiki honi hasiera eman genion, gure egunerokotasunean ipuinek eta kontakete presentzia dutelako eta eguneroko ogi direlako.

Ipuin eta kontaketen bidaia eder honetan haur eskolako familiek ere parte hartzea nahi izan dugu eta elkarlanean proiektu txiki honi ekin genion. Hori horrela, ikasturte hasierako taldeko guraso bileran, ideien berri eman genuen, baina era berean, malgutasunez eta ideia berriak jasotzeko gogoz.

Oso harrera ona izan zuen proposamenak eta ilusioz hartu zuten, gainera. Ondorioz, ekimena guztion artean fintzea eta martxan jartzea erabaki genuen guraso zen irakasleok.

Ostiralean, taldean haurren eta irakasleen artean apaindutako eta koloreztatutako poltsa txandaka haurrek etxera eramaten dute. Ideia da poltsa hori ostiraleko gelakide batek etxera eramatea eta astelehenean etxeko ipuin kuttunen batekin ekartzea. Ipuin hori aste guztia gelan izaten dugu, egunero ipuina irakurtzen dugu eta haurrari protagonismoa eskaintzen diogu. Ostiralean berriro ipuina etxera eramaten dugu eta poltsa beste gelakide batek eramaten du prozesu bera errepikatuz. Poltsaren barruan ipuinen zerrenda dago, bai familiek baita haur eskolak ere gure liburutegitxo osatzen joateko.

Esan bezala, familien erantzuna oso positiboa izan da. Ipuinen zerrenda osatzea beraiekin ideia izan zen, ikusi zutelako jada irakurrita zeuden ipuinak ez errepikatzeko eta etxerako beste ideia batzuk izateko aukera paregabea zela. Gainera, familiek ere pozik bizi dute poltsa berriro beraiekin etxera eraman behar izatea, eta horrek haurrengan ere modu positiboan eragina du.

Haurrak izan dira prozesu guztian ardatz eta protagonistak. Gaur egun poltsetan bakoitzaren eskua identifikatzen jarraitzen dute, eta oso polita da ipuin berrien inguruan duten interesa ikustea. Gainera, familiek bezalaxe, haurrek ere pozik itxaroten dute haien unea berriro iristea.





MUSIKA PROIEKTUA ETA GONBIDATU BEREZIAK

Ikasturtero izaten ditugu gurean musikari gonbidatuak, izan gurasoak, aitona-amonak edo bestelako senideak. Berezi 2 urteko haurrei eskaintzen dizkiete emanaldi horiek, nahiz eta txikiagoak ere hurbiltzen diren, tarte batez bada ere, musikaz gozatzen. Proiektuaren helburu nagusiak dira: hainbat musika-tresna ezagutzea, musika zuzenean entzutea eta lagun artean momentu eder bat pasatzea.

Etorri da Enaitzen Aitona Pio eskusoinu, ipuin eta sudur-gorri eta guzti. Denak dantzan eta algaran jarri zituen Aitor Arozenak txistu eta danbolinarekin. LH2 eta 3koak haien antzerki musikatuak eskaini dizkigute aski pozik, baita pixka bat urduri ere. Akaso emanaldirik bereziena edo ustekabea Harkaitz Urriza, Umaren aita, eta haren lankide-artistek eskainitakoa izan da. Izan ere, Harkaitzek, Igor Otxoak, Thierry Biscaryk eta Kristof Hiriartek "Babesa" obra estreinatu zuten gurekin! Gozamen ederra izan zen begi-belarrientzat! Perkusio, aho-soinu, dantza, begirada eta hitz goxoekin, 25 bat minutuko emanaldiarekin txunditurik egon ginen haur eta heldu. Irailtik aurrera hasiko dira emankizunarekin eta guk primizian ikusi ahal izan genuen! Ohorea gurea!

Proiektuarekin bukatzeko, luxuzko beste gonbidatua izan dugu maiatzean: Jabier Muguruza, Bidaneren aitona, eskusoinua lagun duela. Zorte ederra dugu!

Mila esker artista handi horiei guztiei!

2 urteko irakasleak



HAURREN ARTEKO GATAZKAK

Haurren arteko gatazkak oso ohikoak dira, eta are normalagoak adin-txikiko umeen artean. Helduek, baina, orokorrean ez ditugu liskarrak ongi bizitzen, eta are gutxiago liskar horien ondorioz min fisikoa egon bada. Eta zer esanik ez min fisiko horrek zauria edo marka utzi badu (hozken kasuan, esaterako).

Gatazka horien atzean zer dagoen jakitea garrantzitsua da egoera deseroso horiek ahalik eta modu egokienean kudeatu eta bizi ahal izateko. Oro har, agresioak zerbait lortzeko bitarteko bat besterik ez dira, ez dago besteari kalterik egiteko gogo kontzienterik. Kalte egin nahi duten jokabideak edo mendekua geroago agertzen dira, eta inolaz ere ez haurrak sozializatzen, beren burua ezagutzen eta munduan bizitzeko kodeak ikasten ari diren garaian.

Hori horrela, gatazka guztietatik ikasiko du zerbait bere buruari buruz, besteei buruz eta baita gatazka horretan esku hartu duen helduarengandik ere. Horregatik, eta momentuan zaila izan daitekeen arren, gatazka-uneak hurrekiko ikuspegi positibotik tratatzea komeni da, eta ez ekidin beharreko momentu gisa. Noski, parte guztien segurtasun fisikoa zaintzen saiatuko gara, baina beti ez da beharrezkoa izango presaka esku-hartzea. Haurrak badituzte guk uste baino baliabide gehiago eta harrituko ginateke ikustean gai direla hainbat gatazka helduaren parte hartzerik gabe konpontzeko.

Bestalde, berea defendatu nahi duen haurrari begira, hain negatiboak ez diren beste alderdi batzuk

errespetu eta balioets ditzakegu: determinazioa, pertseberantzia, nahi denaren alde borrokatzeko bulkada, auto-baiezta beharra... Horrez gain, kontuan hartu behar dugu hiru urte bitartean, umeek bulkaden kontrola zailtzen duten ezaugarri kognitiboak eta emozionalak dituztela: helduarekiko mendekotasuna, jelsia, hitzez modu egokian komunikatzeko zailtasuna eta guztiaren gainetik, bestearen lekuan jartzea oso nekeza zaiela.

Orain arte aipatutakoaz gain, garrantzitsua da agresioa gertatu ondoren gure jarrera zaintzea. Akaso komeni da arnasketa sakon bat egitea, edo hamar arte kontatzea, ez baitugu ahaztu behar orokorrean ondokoen jarrerak gudan duten eraginak guretik duela asko, bestearenetik baino (eta haurren kasuan zer esanik ez).

Ahalik eta lasaien, beraz, min hartu duenari egingo diogu kasu lehenengo. Behin min hori erreparatu dugunean, agresioa egin duenarengan jarriko dugu begirada. Oso garrantzitsua da haurra bera ez epaitzea eta errudun ez sentiaraztea. Noski, argi eta garbi esan behar zaio egin duena ezin dela, baina egin duenari esango diogu ezetza, ez pertsonari berari.

Laburbilduz, argi eduki behar dugu umeak ez duela hasieratik asmatuko modu egokian jarduten, eta horretarako dagoela, hain zuzen ere, heldua hor. Hori da gure lana, haurrari tresnak ematea, baina era berean, haien gaitasunengan sinetsiz.

05. URMENDI

URMENDI EGUNA

Maiatzaren 28an Urmendi Eguna ospatu genuen.

Denen artean mimoz prestatu genuen egitaraua eta, kideok gozatzeaz gain, herriari ateak ireki eta bisitan etortzeko aukera ere izan zen.

Mila-mila esker antolaketan ibili zienen gurasoei eta egunean bertan txokoetan txandak egingo zenituzten guztiei!

Elkarlanean eta elkar-zaintzan egun ederra pasatu genuen!



HATZAK BETE LAN

HH3

HAZIAK LORATZEN

Udaberria iritsi da gure gelara ere. Eguzki izpiak giroa goxatzen dute eta ibilaldiak egiteko aukera paregabea sortu zaigu. Hori horrela, HH3ko ikasleak kooperatibara joan gara, ttipi-ttapa, tomate haziak erostera.

Haziak behatu, haien forma, tamaina... eta etxetik ekarritako jogurt potoetan erein ditugu. Eta zer behar ote dute gure tomate haziek bizitzeko?

Beharrezko ura eta argia eskainiz gero tomate ederrak jatea espero dugu!

Gure leloak dion bezala, *bizitzarako hezkuntzan*, hazi guztiak ezberdinak dira, gure txikiak bezala, eta hazi bakoitzaren beharrak entzuten saiatzen gara. Haziak esango digu zenbat ur behar duen ez itotzeko, noiz behar duen berotasun handiagoa, noiz ari den erretzen, noiz dagoen aseta.

Ernatzen ari den haziak da haurra, eta loratze prozesuan bidelagun izango gaitu.



HH4

UDABERRIAN MURGILTZEN

HH4ko ikasleak udaberria gaiari eutsi diogu oraingo honetan. Udaberrian murgiltzeko ibilaldi bat egin dugu Unailekura. Abentura handiko txangoa izan da!

Arditurriko meategietan hamaiketakoa egin ondoren, gorantz abiatu gara. Bidean Oiartzun ibaia zeharkatu dugu makina bat aldiz harrietatik igaroz. Zein neska mutil trebeak! Unailekura iritsi eta, indarberritzeko, bazkaldu egin dugu. Bazkaldu ostean, ingurua behatu, jolastu eta bertako borda ezagutu dugu. Zein txoko polita familiakoekin egunpasa egiteko!

Bertan, Kukua, Zozoa eta Txantxangorria entzun eta ikusi nahi genituen, baina ez genuen zorte hori izan, ezkutatu egin ziren.

Txori hauei buruz jakin-mina sortu zaigunez, informazioa bilatzeari ekin diogu. Horretarako, herriko bibliotekara igo gara eta bertan txoriei buruzko hainbat liburu hartu ditugu ikastolan kuxkuxean ibiltzeko. Etxekoek ere asko dakitenez, etxean galdetu dugu hiru txori hauei buruz zer dakiten. Informazio guztia bildu ondoren, ikastolan taldetan jarri eta bakoitzaren jakin-minak ase ditugu.

Zein ederra den udaberria, eta ze txoko politak ditugun gure herrian!




HH5
NIRE GORPUTZA DA

HHKO etapan gorputzaren ezagutzan eta nortasunaren eraikuntzan murgilduta gaude, eta garrantzia berezia eman nahi izan diogu gorputzari. Gorputz barruko organoetatik hasi, kanpoko itxura ezberdinez jabetu, emozioak identifikatu eta gure izaera ezberdinak maitatu eta elkarren arteko errespetuan oinarrituz, elkarbizitza osasuntsu bat sustatzen saiatu gara. Horretarako, abesti bat hartu genuen ardatz gisa: *nire gorputza da* (kantu kolore).

Abestiaren atalak lantzen joan gara poliki-poliki. Hainbat ekintza eta proposamen ezberdin ere egin ditugu: gorputzak irudikatu (egurrekin, tenperarekin), emozio txartelekin jolastu, emozioen dominoa, bikote mikote, ipuinak, jolas kooperatiboak paraxutarekin, horma-irudia...

Hau emozioen ortzadarra bizitu duguna!



 Ikusi bideoa hemen:
<https://youtu.be/ImKki3vnhYo>



LH1
GORA GU ETA GORA MUNANDI!

Ikasturte hasieran, mailako irteera maitatua genuen Iturriozko Munandi mendira. Eguraldia ez genuen lagun izan eta bertan behera utzi behar izan genuen plana.

Munandiko gaztainondoek gaztainak eman dituzte geroztik, lore berriak ere atera dira Iturriozko soroetan. Eta udaberriaren koloretan abiatu gara pausoz pauso, azkenean, Munandira.

Giro ederra, jarrera ezin hobea eta gozamenerako irribarrea une oro prest genuela heldu gara Munandira!

Bertan, esperientziazioari eta jolasari eman diogu bide: adarrekin izenak idatzi ditugu, zuhaitzak eskalatu, sokarekin egindako zabuan kulunkatu, makilekin antzestu, sua egin, txabola, kilkerak entzun-ikusi, harri-orri-ar zirkuituan ari, ingurua txukundu...

Etengabeko harremanen ibilbidean, norbera-taldearen zaintzatik hasi eta naturaren zaintzara bide polita egin dugu.

Beraz, gora gu eta gora Munandi!



06. HATZAK BETE LAN

LH2

TREBETASUNAK, TALENTUAK ETA LANBIDEAK

Kaixo lagunak!

LH2. mailako 4. gaian "Trebea naiz..." trebetasunek eta talentuek lanbideekin duten lotura aztertzen aritu gara.

Horretarako, gure trebetasunak eta talentuak zein diren aztertu ondoren, horiekin lotutako lanbideak zein diren aztertu dugu. Lanbideei buruz gehiago ikasteko gurasoak gurera gonbidatu ditugu eta gauza mordoak ikasi dugu beraiekin: non dauden lantegiak, zer egiten den lanbide bakoitzean, lanbideek dituzten ordutegi ezberdinak, lanaren truke zer jasotzen den, zergatik daukaten gustuko beraien lana...



Lanbideen mundua oso zabala dela ondorioztatzeaz gain, ohartu gara gure inguruan oso lanbide interesgarriak badaudela: irakasleak, anbulantzia gidariak, diseinatzaile grafikoak, ile-apaintzaileak, sukaldariak, idazleak, ilustratzaileak, kristal garbitzaileak, fabriketako langileak...

Mila esker guztiei!



LH3

"JOSI TA JOSI"

Aurtengo udaberrian moda-modan egongo diren jantziak sortzen aritu gara 3. mailakoak. Bai, bai, gure jantzien MODELO BIHURTU GARA!

Udaberriko oporrak hartu aurretik, buru-belarri aritu ginen arroparen inguruan hitz egiten eta hausnartzen. Arropa izendatzeko hainbat modu ikasi ditugu gaztelaniaz. Urtaroaren baitan zein arropa erabiltzen dugun hausnartu dugu elkarrekin. Gainera, arropa pertsonaia nagusi izan duten istorio pila irakurri ditugu. Eta batez ere, arropa berrerrabiltzearen garrantziaz ohartu gara.

Bukatzeko gu geu izan gara arropa diseinatzaile lanetan aritu garenak! Ikusi nahi sortu ditugun jantziak?



Argazkiak
Zuk ere horrelako jantziak sortu nahi badituzu, jarraitu esteka:
<https://www.ekigunea.eus/lh/euskarriak/?gaia=lenguacastellana33>



06. HATZAK BETE LAN



LH4

ESTANPAZIO LANTEGIA

Joan den martxoaren 26an, herriko bi sortzaileren bisita izan genuen. EKiko 4. unitatearen baitan gorputza eta harremanak lantzen jardun gara eta gorputz aniztasunaren inguruko lanketa egin dugu.

Lanketa hau aberaste aldera, **Allende Arnaiz** eta **Idoia Beratarbide** izan ditugu gurean. Beraien gidaritzapean estanpazio lantegi bat egin dugu, gutako bakoitzak gorputz baten goialdea eta behealdea irudikatuz eta, ondoren, ausaz elkartuz. Gela bakoitzean 20 ikasle

baino gehiago garenez, 400 gorputz konbinazio baino gehiago sor ditzakegula ohartu gara!

Elkartze hauen bidez, guk irudikatutakoa hautsi eta gorputzak eta janzerak erabat ezberdinak eta anitzak izan daitezkeela ikusi dugu. Estereotipo eta aurreiritzi guztien gainetik, gorputzen edertasuna ulertu dugu.

Mila esker, Allende! Mila esker, Idoia! Plazera izan da zuek gurean izatea.

LH5

MAITE DITUGU GURE BAZTERRAK

“Maite ditut maite gure bazterrak” Mikel Laboaren kantuak dioen moduan, guk ere maite ditugu gure bazterrak. Ingurunea arloko bigarren unitate honetan gure herriko eta Euskal Herriko hamaika bazter ezagutu ditugu. Ezagutu, aztertu eta babesteko neurriak hartu. Ez al da hori maitatzea?

Bigarren hiruhilekoari amaiera eman genion gure herria bisitatzeko turismo gida bat osatuz eta guk geronek ere ibilaldi bat egin genuen Beloaga gaztelua ezagutzeko. Oinez abiatu ginen ikastolatik eta Gurutzeko bidegorri berria ezagutu genuen. Beloagako lanak ere bukatuta zeudenez, gaztelua bera bisitatzeko aukera izan genuen eskilara, pasarela, behatoki eta guzti.

Oinez ez ezik, Oiartzungo ondarearen webgunearen bitartez ere bisitatu ditugu gure herriko monumentu batzuk: baserriak, eliza, udaletxea, dorretxeak, Landetxe, garbilekua... Herrian ditugun beste altxor gune batzuk ere ezagutu ditugu, herriko naturguneak: Aiako Harria parke naturala, Urkabe mendia, plaza inguruko lorategiak eta zelaia eta baita Aritxulegiko gaina ere.

Aritxulegik abesti bat baduela ere jakin dugu eta abesti hori ikasi dugu unitate honetan. Azken astean emanaldi bat eta guzti egin genuen: txirulak, biolinak, gitarrak eta gure ahotsak elkartuz. Ikusi nahi?



Hemen bideoren esteka:
https://www.youtube.com/watch?v=104hoXuuv_E

06. HATZAK BETE LAN



5.000 eurotik gora jaso dituzte Chernobilen Lagunak elkarteak kideek, gure ikasleen eskutik.

LH6

ELKARTASUNA IRABAZLE!

Aurten ere, EKI proiektuaren barruan, 6. mailako ikasleok gure bizi-baldintzei buruz hausnartu dugu: nola bizi gara? Zein baldintzatan? Beste herrialdeetan ere gu bezala bizi dira? Zenbateko bizi-itxaropena dugu hemen? Eraginik ba ote dute bizi-baldintzek gure bizi-itxaropenean?... Hamaika galdera sortu zaizkigu unitatean zehar, baita gogoetarako bide ugari ireki ere!

Gure ikerketatik ondorio garbia atera dugu: bizi-baldintzek eragin zuzena dute gure bizitzetan eta gurea baino errealitate gordinagoan bizi diren leku ugari daude munduan. Herrialde horiek, zorionez, gure inguruko elkarte askok laguntzen dituzte eta guk ere gure alea jar genezakeela ondorioztatu dugu. Horretarako, Gobernu Kanpoko Erakunde desberdinek egiten duten lana hurbiletik ezagutu dugu eta horietatik bat aukeratu behar izan dugu denon artean (guregatik balitz gehiagori lagunduko geniokeen!). Hala ere, egun bertan bizitzen ari diren egoera aintzakotzat hartuta, mailakide guztien artean Chernobilen Lagunak izeneko elkartearen alde lan egiteko apustua egin dugu.




Bideoa:
<https://youtu.be/GvVLecdIxxu8>



Mailakide guztien artean aritu gara antolaketan lanetan, ez dakizue zenbat zeregin sortu zaizkigun eta zeinen gustura hartu ditugun denak! Lan taldeetan banatu gara eta ardurak zehaztu ditugu, denon artean eskulanak sortu ditugu, etxekoen laguntzarekin bakoitzak eskaintza desberdinak egin dizkiogu proiektuari... Hori guztia, ahalik eta laguntza gehien lortu ahal izateko. Horrez gain, geletan eltzetsuak jarri ditugu eta izugarritzko erantzuna jaso dugu; Albistur jabetzerako otordu bat zozkatzen duten errifak ere martxan jarri ditugu eta bikoteka saldu ditugu. Azkenik, elkartasun azoka antolatu dugu Arraguako jaietan. Zenbat jende hurbildu den eta zenbat elkartasun erakutsi duten!

Ekintza hauekin guztiekin gure adineko haurrei laguntza eman nahi izan diegu, baina ez dakizue zenbat eskaini digun proiektu honek guri! Zeinen indartsua den taldearen elkartasuna!



DBH1

MATEMATIKARIAK, HISTORIAN ZEHAR

Matematika hitza eta arloa oso txertatuta dugu ikastolako egunerokotasunean, baina... ba al dakigu benetan historian zehar zein bilakaera izan duen eta zein pertsonen izenak eragina bere garapenean?

Horren ardura hartu dute DBH1. mailan Matematika Lantegia lantzen ari diren ikasleek. Bikoteka hamahiru (edo 12+1) matematikari ospetsuren bizitzak, ikasketak, bitxikeriak, matematikari egindako ekarpenak... ikertu eta aztertu dituzte, gainerako kideei kontatu eta matematikaren inguruko ezagutza sakontzeko asmotan.

K.A. garaian Pitagorasekin eta Arkimedesekin hasi, Newton, Gauss edo Euler bezalako matematikari ezagunekin jarraitu eta azken mendean garrantzitsuak izan diren Einstein edota Alan Turing ere ezagutu dituzte. Ahaztu gabe, noski, emakumeek ere presentzia izan dutela garapen horretan! Hipatia eta Emmy Noetherrek, besteak beste, ekarpen baliagarriak egin zituzten.

Eta zuk, ezagutzen al dituzu?



DBH2

KATTALIN ARABOLAZAK SARIA ESKURATU DU ELKAR LEHIAKETAN

2023ko maiatzaren 6an egin zuten 15. Elkar Ilustrazio eta Ipuin lehiaketako sari banaketa ekitaldia, Donostiako Alde Zaharreko Elkar liburu dendan. Bertan izan ziren edizio honetako sarituak eta baita beraien familiako kideak ere.

Hautzaroko DBH2ko Kattalin Arabolaza Palomok jaso du sarietako bat: E mailako 1go saria, DBH1 eta DBH2. maileri dagokien ipuinentzako saria.

Alex Orbek egindako ilustrazioarekin ipuin bat osatuta behar zuen. *Agur besarkada* ipuinarekin tableta, jolas hezitzaile sorta ederra eta opari txartela (70€) eskuratu zituen. Zorionak! Aurten ere partaidetza izugarria izan da. Izan ere, 8.000 lagunek baino gehiagok hartu dute parte: 3.100 ipuin jaso dituzte, 4.300 ilustrazio eta 1.100 komiki, gutxi gorabehera. Gainera, beste urte batez, jasotako lanen maila oso altua izan dela adierazi dute arduradunek.



Alex Orberen irudia
Irudi hau izan da abiapuntua istorioa sortzeko.

AGUR BESARKADA

Azken hatsa emango dut hemen; oinak dardarka ditut eta bihotza herren. Azkenekoz arnastuko dut aire garbi hau. Nire azken segundoak zenbatzen ari naiz: bat, bi, hiru, lau... Zuek izan zarete denbora honetan nire babesa: horixe da ni bezalako haurren ametsa. Zuek izan zarete niretzat udaberriko lehen lilia. Eskerrik asko, familia.

Udako azken egunak dira, eta hemendik alde egin behar dut oso urrutira. Azken eguzki printzak; zuekin egingo ditudan azken ekintzak. Azken argia; askatu egingo da zuekin josi dudana haria.

Primeran sentitu naiz zuen alboan, eta beti izango zaituztet gogoan. Ederrak izan dira zuekin igarotako momentuak: nire bihotzean sakratuak. Ederrak zuekin egindako barre guztiak: dantzan jarri dizkidazue ezpain eta mihia. Ederra izan da zuekin hondartzara joatea: zuekin ikasi dut zer den olatuekin jolastea. Ederrak izan dira zuekin egindako otorduak ere: ez dut bat bera ere igaro irribarrerik egin gabe. Zuekin pasatako gau bakoitza ere ederra izan da: orduak eman ditugu izarrei begira belarretan etzanda. Ederra izan da Bixkor ezagutzea: izugarri maite du aurpegiak miazkatzea. Eta, bereziki, gurpil batez osatutako zabu honek ere gauza asko eskaini dit: nire buruari bueltak emanez denbora askoan egon naiz hemen geldik.

Eta, zabu hau izan denez esperientzia honen buru eta hezurra, erabaki dut bere gainean ematea geratzen zaidan denbora apurra. Horregatik, kulunkan nago hemen, zuekin bizitutako guztiari errepasoa ematen.

Korapilo ilun bat dut barrenean, hemendik aurrera hutsunea izango dudalako aldamenean. Nire baitatik

atera, eta kolpe batez ireki dut nire begi urduria; ohartu naiz hau dela ikusiko dudana familiako azken irudia. Hala, ikusitakoa gogoan iltzatuta geratu zait berehala. Eguzkia sartuta ere, nire buruan ez da sekula desagertuko zuen itzala.

Zure falta nabaritu du, anaia Joan; orain zauden bezalaxe, beti egon zara nire alboan. Zu ere, beti bezala ortozik, osaba Eneko: lorategi eder honetako belarra oinetan sentituz, fresko-fresko. Aita, ama eta izeba izadi guri begira zaudete adi-adi. Eta, itzaletik ihesi, Bixkor lo zaude tristuraz beteta, laster miazkatzeko aurpegi bat gutxiago izango duzu eta.


Faltan sumatuko ditut zuekin igarotako une, barre, hondartza-egun, otordu eta gau guztiak. Denak izan dira ahaztezin eta bereziak. Faltan sumatuko dut zuhaitzeko zabuan kulunkatzea, eta faltan sumatuko dut Bixkorren mihi bustia aurpegian sentitzea.

Gogor eman dizuet agur-besarkada: autobusera igotzeko ordua da jada. Halere, besarkada batek ez du uda hau laburbiltzen; milaka ordu pasatuko nituzke eman didazuen dena itzultzen.

Azken hatsa emango dut hemen; oinak dardarka ditut eta bihotza herren. Azkenekoz arnastuko dut aire garbi hau. Nire azken segundoak zenbatzen ari naiz: bat, bi, hiru, lau... Zuek izan zarete denbora honetan nire babesa: horixe da ni bezalako haurren ametsa. Zuek izan zarete niretzat udaberriko lehen lilia. Eskerrik asko, familia.

Banoa beste bizitza bat hasi eta arnastera. Banoa berriz ere Txernobiler.

06. HATZAK BETE LAN



DBH3

NEGUTEGI JASANGARRIAK: IDEIAK BILDU, DISEINATU ETA ERAIKI!

STEAM ETA ESKOLAKO AGENDA 30


DBH3. mailako ikasleak **elektronikarekin** jolasean aritu ginen ikasturteko 1. hiruhilabetea. Bigarren, aldiz, **diseinatzaile abileziak** martxan jarri eta buruan genituen ideiak errealitatera ekartzen aritu ginen, **marrazketa teknikoaren** laguntzarekin. Honen fruitu izan dira jarraian ikusi ahal izango dituzuen maketak.

Baina zein izan zen maketa hauek eraikitzeke planteatu zitzaigun **erronka**? Hona hemen unitate hasieran egin zitzaigun egoeraren eskaera:

Populazioa nekazaritza-guneetatik hirietara desplazatzen ari da, hiriguneek gero eta populazio handiagoa hartzen dute, eta landa-eremuak, aldiz,

biztanleak galtzen ari dira. Despopulazioaren arazoari, klima aldaketaren ondorioak gehitu behar zaizkio. Horrek aldaketa handiak ekarriko ditu: besteak beste, euri gutxiago egingo du, ekaitzak bortitza izango dira, eta lehortea, berriz, luzeagoak. Ondorioz, etorkizunean langile gutxiagorekin eta klima baldintza zailagoetan elikagai gehiago produzitzeko estrategiak garatu beharko direnez, arazo horri lagunduko dion estrategia bat proposatu behar duzue.

Egoera aztertuz eta ikastola mailan Eskolako Agenda 30ek dituen Garapen Jasangarriko Helburuen lanketa egiten dugula kontuan izanik, **STEAM proiektu** honetan bildu nahi izan ditugu gure ezagutzak.



Erronkari aurre egiteko, **negutegi jasangarriak** honela diseinatu ditugu:

- Alde batetik, **alderdi elektronikoari** esker, negutegiko **argia eta temperatura** erregulatuko da automatikoki; hau da, negutegian guk zehaztutako temperatura eta argia izango dugu horretarako diseinatu dugun programak **sentsore eta eragingailuen** bidez erregulatu egingo dituelako.
- Bestalde, negutegiak energia izan dezan, **eguzki plaka** gehitu diogu elektrizitatea biltzeko asmoz.
- **Marrazketa teknikoaren baliatuz** egindako lana ere aipatzekoa; izan ere, diseinu ikusgarriak sortu zituzten, baita errealitatera ekarri ere.

Hona hemen talde baten azalpena eta zenbait negutegiren diseinu eta maketen argazkiak:



Ikusi bideoa hemen:
https://youtu.be/8ir_zHBCnsQ

DBH4

PRESIOAREKIN JOLASEAN


DBH4. mailako ikasleak **teknologia** arloan zirkuitu pneumatiko eta hidraulikoen lanketa egin dugu. Egunerokotasunean aipatutako zirkuitu motak leku ugarietan topa ditzakegu, esate baterako, autobusetako ateetan, kamioien atoiak altxatzeko mekanismoetan, garabietan...

Unitatea hasteko zenbait egoera planteatu zitzaizkigun eta gustukoena gurenen arabera taldeak osatu genituen. Unitatean zehar edukiak landu eta amaieran gure proiektua eraiki genuen. Zirkuitu mota hauetan jariatzen diren presioa eragiten zaio eta presio hau intentsitate beraz banatzen denez zirkuitu osoan zehar, lan karga handiak egitea ahalbidetzen du. Besteak beste, honakoak dira dituzten abantailak: indar handiko lanak egin daitezke, abiadura kontrolatzea errazten dute eta noranzko-aldaketa bizkorrek egiteko erraztasuna dute. Baina, bestalde, instalazio hauek zaintzeko langile prestuak behar dira, fluidoak garestiagoak dira eta marruskaduraren ondorioz energia galtzen dute.

Honako erronkak proposatu zitzaizkigun gure proiektuak egin ahal izateko (guztiak instalazio pneumatikoak izan behar zituzten):

- Sarrera-irteerako ate automatikoak dituen garajea
- Zama-igogailu mugikorra
- Ate irristakorra
- Garabi pneumatikoa

Jarraian duzue gelako talde batek erronkari aurre egiteko egindako diseinuaren eta maketaren azalpena:



Ikusi bideoa hemen:
<https://youtu.be/-tatjck2oAw>



AMESTURIKO JOLASLEKUA



IKASTOLA EGUNA



IHOTEA



INAUTERIAK





TALDEA

Eskuttun

Kaixo, euskararen lagun:

Eskuttuneko bidaiari duela 4 urte eman genion hasiera. Lehen aldiz egingo genuen ibilaldi horri ilusioz heldu genion, aurrean genituen esperientziak bizitzeko gogoz.

Denbora honetan hainbat eta hainbat ekitaldi antolatu ditugu: Euskararen Eguna, Korrika, Argitxoren ongi etorria... Eta noski, horietako bakoitzean asko ikasi dugu.

Astean ordu gutxi egon gara elkarrekin, baina denbora horretatik atera duguna asko izan da, dudarik gabe. Besteek irakatsitakotik indartu dugu gure burua, eta orain bukaeran, gure egitekoa izan da besteei guri transmititu digutena zabaltzea.

Orain, bidaiaren amaierara heldu gara, helmuga aurrean ikusten dugu eta azken urratsak egin eta bidelagun izan ditugunei eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Mila esker, azken lau urteetan Eskuttuneko partaide nahiz irakasle izan direnei, eskerrik asko, gurekin batera pausoz pauso ibilaldi hau egiteagatik.

Euskarak indartsu jarrai dezan,
gora Eskuttun!
Gora gu!



Lilaton 2023

Ingo ñeu!

Ingo ñeu! lelopean Lilatoi herrikoian parte hartu zuen Haurtzaro Taldeak aurtan ere, emakumeon eskubideen alde.

Talde polita osatzea lortu zuten: ikasleak, irakasleak eta gurasoak.



LABURRAK



Azkue sarietan garaile berriro

Ostiralean, maiatzak 5, banatu zituzten Azkue Sariak. Haurtzaron bost sari jaso ditugu, guztira:

- LH6. mailan hiru ikasle izan dira sarituak: **Manex Arabolaza, Iraia Arabolaza eta Lur Martin.**
- DBH2. mailan bat: **Lorea Arruabarrena.**
- Eta ikastola gisa sari berezia jaso dugu beste urte batez, lanik gehien aurkeztu dugunak izan baikara.

Euskaltzaindiak eta BBK-k 1991tik **gazteak literatura mundura erakartzea dute helburu nagusi Azkue Sariak**. Urtero bezala, aurreko ere literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, Euskaltzaindiak izendatutakoak hartu du erabakia eta sariez gain «idatzien heldutasuna eta kontakizunaren bizitasuna» nabarmendu dute.



Lau saritu Eskolarteko Bertsolari Txapelketan


Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan Haurtzaro Ikastolako 4 ikaslek lortu dute saria.

- **Malen Oiarbide** (LH3-4)
- **Intza Mitxelena** (DBH1-2)
- **Kattalin Arabolaza** (DBH1-2)
- **Egiar Otegi** (DBH3-4)
- Guztira, 73 ikaslek hartu zuten parte.



Hemen ikusi ditzakezue argazki eta bideo guztiak:
<https://haurtzaroikastola.eus/lau-saritu-eskolarteko-bertsolari-txapelketan/>





Hautzaro-Gwiseni trukea berreskuratu dugu

Martxoaren 25ean DBH3 eta DBH4ko hainbat ikasle Britainiara joan ziren astebetez. **Pandemia aurreko trukeak berreskuratuz**, Gwisenin egon ziren.

Maiatzaren 5etik 12ra, **berriz, Bretoiak** izan ziren **Oiartzunen**. Familiekin egoteaz gain, **Arditurri bisitatu zuten, Irisarri Land (Igantzín, Nafarroa), Arantza (Nafarroa), Donostia (Zientzia Museoa, hiria bera, Haizearen Orrazia...), Zumaia, Gernika eta Oiartzun.**

Oso aberasgarria izan da trukea. Eskerrik asko eta laster arte!



Matematikako udaberri lehiaketa

Izen-abizenak: June Irigoien Matas
Maila: DBH3

- **Zergatik parte hartu zenuen?** Erronka bat bezala ikusi nuen nire buruarekiko, aurreko urtean ere parte hartzeko aukera eduki nuen, eta gustatu zitzaidan, beraz, aurten ere parte hartzea erabaki nuen.
- **Zer moduz aurkitu duzu zure burua?** Ondo ikusi dut, erronka batean bezala ikusi naiz, izan ere, azterketan egiten dena oso ezberdina da klaseko lanetik. Baina nahiko ondo egin diot aurre.
- **Zer da gehien gustatu zaizuna?** Orokorrean dena gustatu zait, gehienbat prestaketa eta Leioara joatea. Esperientzia berri bat probatu ahal izan dut, eta oso gustura egon naiz.
- **Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?** Esperientzia polit bat bezala laburtuko nuke. Nire ikaskideei parte hartzea gomendatuko nieke, oso ondo pasatzen da eta dudarik gabe errepikatuko nukeen gauza bat da.

Izen-abizenak: Unai Gil Fernandez
Maila: DBH2

- **Zergatik parte hartu zenuen?** Gurasoek esan zidatelako parte hartzeko eta gero han pasatzeko eguna. Eta irakasleak ere eskatu zidalako.
- **Zer moduz aurkitu duzu zure burua?** Galduta aurkitu nintzen, lehenengo aldia izanik. Gainera, zailagoa izan zen hangoa ikastolakoarekin alderatuta.
- **Zer da gehien gustatu zaizuna?** Han egotea, eta parte hartzea.
- **Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?** Zaila iruditu zitzaidan arren ongi egon nintzen.

Izen-abizenak: Aitana Rincón Gutierrez
Maila: DBH1

- **Zergatik parte hartu zenuen?** Argi daukat, ez nuela inoiz parte hartu nota ona ateratzeko intentzioarekin. Nik parte hartu nuen, oso esperientzia desberdina, polita eta oso harrigarria delako. Eta pila bat eskertzen dut aukera hau eduki izana.
- **Zer moduz aurkitu duzu zure burua?** Matematika Lehiaketa baino egun batzuk lehenago, urduritasun asko sentitu nuen. Baina berezia izan zen, lehiaketa egiten ari nintzen momentuan harrotasuna sentitu nuelako, eta aldi berean poza. Horregatik, nire burua nahiko ondo ikusi nuen, egia da, momentu batzuetan oso urduri nintzela, baina nire burua uste nuena baino hobeto aurkitu nuen.
- **Zer da gehien gustatu zaizuna?** Egia esan, zaila dela, esatea zer den gehien gustatu zaidana, azkenean lehiaketa bat delako. Baina uste dut, gehien gustatu zaidana Leioako Unibertsitatean egotea izan dela, eta noski bizi dudana esperientzia harrigarria.
- **Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?** Laburtuta... Esperientzia oso polita eta, aldi berean, beldurgarria. Baina nire ustez bizitzak eman dituen aukeratako bat izan da, eta horiei ezin da ezetz esan. Baina, noski inportanteena, konfiantzarik falta gabe joan behar dela da. Eta, balioetsi horrelako esperientziak, harrigarriak direlako.

Izen-abizenak: Xabier Sukia
Maila: DBH2

- **Zergatik parte hartu zenuen?** Beste esperientzia bat probatu nahi nuelako.
- **Zer moduz aurkitu duzu zure burua?** Nire burua ondo ikusi dut.
- **Zer da gehien gustatu zaizuna?** Matematikako lehiaketan sartzeko aukera edukitzea.
- **Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?** Esperientzia oso ona izan da eta gauza berri eta truko berri asko ikasi ditut.

Izen-abizenak: Peru Garro Boan
Maila: DBH2

- **Zergatik parte hartu zenuen?** Aukera ona iruditu zitzaidan esperientzia berriak bizitzeko.
- **Zer moduz aurkitu duzu zure burua?** Nahiko ongi aurkitu dut nire burua, baina ikastolako baino zailagoa egin zait lehiaketa.
- **Zer da gehien gustatu zaizuna?** Gehien gustatu zaidana esperientzia berri bat izan dela izan da, horrekin gelditzen naiz.
- **Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?** Esperientzia oso ona eta ikasteko baliagarria.



Izen-abizenak: Egia Otegi
Maila: DBH4

- **Zergatik parte hartu zenuen?** Lehiaketa honetako ariketak nola erantzun pentsatzea gustatzen zait, nola egin, zer, hori da gustatzen zaidana. Eta behin bigarren fasera pasatu ondoren, ezin aukera utzi.
- **Zer moduz aurkitu duzu zure burua?** Lehen faseko ariketak oso errazak iruditu zitzaizkidan, logika apur batekin erraz egin zitezkeenak; bigarren faseko ariketak, aldiz, konplikatuagoak egin zitzaizkidan, ez horren errazak, zailagoak, eta sentsazio txarrarekin ateratu nintzen.
- **Zer da gehien gustatu zaizuna?** Gehien ariketak egitea gustatzen zait, nola egin pentsatzea, lehen fasean asko erantzun nituenek asko gustatu zitzaidan, eta egia esan noizean behin ere begiratu izan dut nola egin nituen.
- **Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?** Nik ongi pasatu dut, ez zenez lehen aldia, ez nuen horrenbesteko urduritasunik, eta nahiko lasai egin ditut ariketak.

Izen-abizenak: Markel Uzkudun Zabala
Maila: DBH3

- **Zergatik parte hartu zenuen?** Aurrekoan parte hartu nuen, gustatu zitzaidan eta berriro aukera ikusi nuenean, aprobetxatu egin nuen.
- **Zer moduz aurkitu duzu zure burua?** Ongi, ongi, galdera asko zailak ziren edo denbora gehiegi eskatzen zuten eta ezin izan nituen egin.
- **Zer da gehien gustatu zaizuna?** Ez duzula teoria erabili behar, agian zati bat bai, baina denetik erabili behar duzu, ez duela gutxi ikasitakoa, ez dakizu zer egin behar den bakoitzean erantzuna ateratzeko eta pentsatzeko zatia handiagoa eta konplexuagoa da. Ez da egin hau eta gero hau. Baizik eta pentsatu soluzio posible bat, aurkitu, bidea aurreikusi eta erantzuna ateratu.
- **Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?** Oso estresantea, denbora gutxi eta galdera asko. Baina esperientzia ona izan zen, abiadura eta pentsamendu lateral asko behar zenuelako.

ESKOLAZ KANPOKOAK

—

Eskulanak

Haurtzaro Ikastolan, eskulanak jarduera izan da beste ekintza askok bezala arrakasta handia izan duen ekintza. Orain artean, LHko ikasleei bakarrik eskainia izan da. Aurtun lehenengo aldiz, HH5eko ikasleei eskaintzea erabaki eta gauzatu dugu.

Beraz, ikasturte honetan, **HH5etik hasi eta LH2.** mailara bitarteko 4 talde izan ditugu eskulanetan. Astean behin eta eguerditan izan du ordu eta erdiko saioa talde bakoitzak.

HH5. mailan eskaini dugun lehen urtea izateko arrakasta izan du: bi taldetxo atera dira eta, egia esan, oso gustura aritu dira sormen lanetan.

Eskulanetan, birziklatutako materialarekin, adinerako egokiak diren teknika ezberdinak erabiliz eta teknika horiek nola erabiltzen diren ikasiz izugarrizko lan politak sortu dituzte. Horien artean: **mahai jolasak, maskarak, amets harrapatzaileak eta beste izugarrizko lan pila.**

Lan horiek egiten laguntzen eta teknikak erakusten bi hezitzaile aritu dira: Idoia Motiño Mendez eta Itziar Duarte Rosillo. Biak dira hezitzaileak eta eskulanetan eta sormen lanetan adituak.

Bagenekien arren, **ikusi dugu izugarrizko artista bikainak ditugula gurean, eta etorkizun polita dugula sortzaile txiki hauekin.**

Gogoratu nahi dugu, hau guztia, **EUSKARAZ** egiten dugula, noski.

Mila esker eskulanetan parte hartzen duzuen ikasle guztiei, baita hauekin lanean ari zareten hezitzaileei ere!

Lan bikaina egin duzue beste behin! Bejondeizuela!



ESKULANAK




OIARTZO

-

8

Martxoak

Itzalpeko itzal handiko
Euskal Herriko emakumeen bila



MARTXOAK 8

Oiartzoko ikasleak 2022-2023



Egun gero eta seinalatuagoa da martxoaren 8a gure egutegietan. Eta hala behar du, gainera. Bistaratzeko eta aldarrikatzeko asko dago oraindik. Aitzitik, horretarako erreferentziazko emakumeen bila hastean, atzerrira jotzen dugu maiz. Izango ziren eta izango dira ba Euskal Herrian ere gisa horretako emakumeak? Dudarik gabe: izan dira eta badira itzalpeko itzal handiko emakumeak gurean, bere txikitasunetik eta inurri lanetik mugarri diren euskal emakume guztiguztiek ahaztu gabe.

Hari horri tira diote aurten Oiertzo batxilergo ikastolako bigarren mailako ikasleek; sokari tiraz, ezerezaren pare gordeta egon diren erreferentziazko hainbat euskal emakume itzalpetik argira ekartzeko asmoz. Gisa, tankera eta alor ezberdinetan aritutako emakumeen ekarpenari eta lanari aitortza txiki bat egitea izan da helburua.

Euskara eta Literatura ikasgaian hasi zuten bidea. Euskal Herriko emakume esanguratsuen biografiak idazteko eta kontatzeko informazio bila hastean, asko eta askoren irudirik ez zegoela ohartu ziren. Eta hor lotu zen harira Adierazpen Teknika Grafiko Plastikoetako ikasgaia ere, berehalakoan heldu baitzion irakasle eta ikasle artista taldeak irudiak falta zituzten emakume horien erretratuak sortzearen erronkari. Egungo teknologiak erabiliz jarri zioten ginga proiektuari: aplikazio baten bitartez, irudiei begi- eta aho-mugimendua eman zieten, eta ahotsa jarri ikasleek beraiek biografietan idatzitakoa oinarri hartuta. Itzalpetik ateratzeaz gain, bizia eman.

Motibo ezberdinengatik Euskal Herriko historian esanguratsuak izan diren txoko bateko eta besteko 62 emakumeren biografia-, irudi- eta bideo-bilduma izan da proiektuak utzi duen emaitza. Beren lan, lorpen edota ezagutzagatik esanguratsuak direnak daude tartean, baita bortxatuak edota erailak izan direnak ere. Itzalpeko bilduma amaigabe bateko lehen argi printzak izan bitez!



*Hiru urterekin eman ziguten
gure ikastolako giltza
Kaxa ireki eta osatu
genezan gure jakintza
Horrela izan zen hasiera
Baina urteak doaz aurrera
ta hemen dago emaitza
Zuen laguntza eskertzen dugu
gure galderen ekaitza
Ta etorkizun hurbilean da
oraintxe gure peskiza
Hasieratik hamairu urte
Bukatzea ere enuen uste
Baina uztea da baldintza
Osa dezagun bizitza*

Doinua: "Izarren hautsa"
2007

*Bukatuta haurtzaro banda
Jada pasa dugu langa
Beste bide bat hartuko degu
guk garbi esanda
kursoa jasta jolan da
Agurraren pean jada
Aio-irakasle esker beroak
Plazerra izan da (bis)*

Doinua: "Dozena bat bertso berri"
2007





Haurtzaro Ikastola
bizitzarako hezkuntza

DBH 4 - 25. promozioa
2023